

**Nik PATXI LAPATZA GORTAZAR BENGEOA, Hernaniko udaleko Idazkariak  
honako hau**

**ZIURTATZEN DUT**

**OSOKO BILKURA 02/2023B**

**HERNANIKO UDALAK 2023KO EKAINAREN 20AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

**ALKATEA:**

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra.

2023ko ekainaren 20an osoko bilera egin da Udaletxean, arratsaldeko 18:00etan, aurrez deialdia egin zegoelarik. Bilera Xabier Lertxundi Asteasuinzarra alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako zinegotziak eta neu, Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa idazkaria.

**ALKATEORDEAK:**

Patxi Iburguren Echeverria  
Itsaso Lekuona Legorburu  
Ainara Atorrasagasti Urizar  
Aitor Lukas Solano

**ZINEGOTZIAK:**

Asier Mingo Arruabarrena jn  
Amaia Miner Canflanca  
Aitor Huici Izagirre  
Urko Lazcoz Fernandez  
Oier Agirresarobe Lizaso  
Miren Kistiñe Rodriguez Polaina  
Andoni Amonarraiz Gómez jn  
José Antonio Cuesta Solé jn.  
Blanca Alberro Aranzasti and.  
Miryam Vazquez Vecino  
Mikel Gurutzeaga Zubillaga jn.  
Ismael Ganchegui Gonzalez jn  
Ricardo Crespo Rubio jn.  
María Jesús Ruiz Ochoa and.  
Jaione Aristregui Cao and.  
Lurdes López Gorrotxategi and.

**IDAZKARIA:**

Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa.

**KONTU-HARTZAILEA:**

Aitor Sarasola Salaberria.

**1.- ALKATEAREN ERABAKIEN BERRI EMATEA HONAKO PUNTU HAUEI DAGOKIENEZ:**

**1.1.- TOKIKO GOBERNU BATZARREKO KIDEEN IZENDAPENA. 2023DEKR1876**

**DEKRETUA.-** Hernanin bi mila eta hogeitahiruko ekainaren 19an

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 21.2 eta 23.3 artikuluen bidez ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

**ERABAKI DUT**

LEHENA.- Tokiko Gobernu Batzarreko kide izendatzea aipatutako alderdi politikoko honako zinegotzi hauek, indarrean dagoen tokiko araudiak ematen dizkien ahalmen eta eskubideekin.

- 1.- Itsaso Lekuona Legorburu (EH Bildu)
- 2.- Patxi Iburguren Etxeberria (EH Bildu)
- 3.- Ainara Atorrasagasti Urizar (EH Bildu)
- 4.- Aitor Lukas Solano (EH Bildu)
- 5.- Andoni Amonarraiz Gomez (EAJ-PNV)
- 6.- Ricardo Crespo Rubio (PSE-EE)
- 7.- Lourdes Lopez Gorrotxategi (Elk. Podemos)

**BIGARRENA.-** Zinegotzi horiei ebazpen honen berri ematea, eta Udalbatzari ere bai, egiten den hurrengo Osoko Bilkuran. Erabakiaren laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da.

**HIRUGARRENA.-** Ebazpen hau Alkatetzako Ebazpen Liburuan jaso behar da, eta hartzen den egunaren biharamunetik aurrera izango du eragina.

## **1.2.- ALKATEORDEEN IZENDAPENA. 2023DEKR1877**

**DEKRETUA.-** Hernanin bi mila eta hogeitahiruko ekainaren hemeretzian.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 21.2 eta 23.3 artikuluen bidez ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

**ERABAKI DUT**

**LEHENA.-** Tokiko Gobernu Batzarreko kide diren zinegotzi hauek Alkateorde izendatzea, indarrean dagoen tokiko araudiak ematen dizkien ahalmen eta eskubideekin.

- 1.- Itsaso Lekuona Legorburu (EH Bildu)
- 2.- Patxi Iburguren Etxeberria (EH Bildu)
- 3.- Ainara Atorrasagasti Urizar (EH Bildu)
- 4.- Aitor Lukas Solano (EH Bildu)

**BIGARRENA.-** Zinegotzi horiei ebazpen honen berri ematea, eta Udalbatzari ere bai, egiten den hurrengo Osoko Bilkuran. Erabakiaren laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da.

**HIRUGARRENA.-** Ebazpen hau Alkatetzako Ebazpen Liburuan jaso behar da. eta hartzen den egunaren biharamunetik aurrera izango du eragina.

## **1.3.- ALKATE KARGUA IZENDATZEA ARDURALDI OSOKO ERREGIMENEAN. 2023/1878 DEKRETUA**

**DEKRETUA.-** Hernanin, bi mila eta hogeitahiruko ekainaren hemeretzian.

Hernaniko Udalaren 2023ko Aurrekontua gauzatzeko oinarrien 11. oinarria ikusita,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 21.1 artikulua a) eta f) atalen bidez ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

**ERABAKI DUT:**

**LEHENA.-** Beren kargua dedikazio osoz betetzeko ondorengo gobernu taldeko Udalbatzako kidea izendatzea, jaso beharreko urteko ordainsariak honako hauek direlarik:

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra jauna, Alkatea

Urteko ordainsari gordina: 53.604,46 € euro, 14 ordainsaritan jasotzeko.

Noiztik aurrera: 2023-06-17

Gastu hori Hernaniko Udalaren aurrekontuko partida honen kontura kontabilizatuko da:

1 01.100.01.912.00 "Gobernu organoen oinarrizko ordaintak eta bestelako ordainsariak"

**BIGARRENA.-** Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrean Lertxundi Asteasuinzarra jaunaren afiliazioa eta alta eskatzea. Udalak hartuko ditu bere gain Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrek enpresei beren zerbitzura lan egiten duten langileei dagokienez jartzen dizkieten betebeharrak. Dekretu honek ondorio juridikoak izango ditu 2023 ekainaren 17tik.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu.

**LAUGARRENA.-** Erabaki honen berri Udalbatzarri ematea.

## **1.4.- ZINEGOTZI DELEGATUAK. 2023DEKR1879**

**DEKRETUA.-** Hernanin, bi mila eta hemeretziko ekainaren 19an

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 21.3 eta 23.4 artikuluen bidez ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

## **ERABAKI DUT**

**LEHENA.-** Alkatetza honi dagozkion zenbait eginkizun, ondoren aipatzen den alorrekoak, ondoko udalkide hauen **ESKUORDETZEA**

ITSASO LEKUONA LEGORBURU, and. (EH BILDU)

-KULTURARTEKOTASUNA, LANKIDETZA ETA BERDINTASUNA ARLOAK

PATXI IBARGUREN ETXEBERRIA and. (EH BILDU)

-TOKIKO GARAPENA, TURISMOA ETA MERKATARITZA ARLOAK

OIER AGIRRESAROBÉ LIZASO jn. (EH BILDU)

-EUSKARA, HEZKUNTZA, PARTEHARTZEA ETA ETXEBIZITZA ARLOAK

AITOR LUKAS SOLANO jn. (EH BILDU)

-GAZTERIA ARLOA

**BIGARRENA.-** Eskuordetze orokor hauetan honako zeregin hauek sartzen dira, bakoitzaren alorreko gai eta zerbitzuei dagokienez:

1.-Arloa oro har zuzendu eta kudeatzeari buruzko eskumenak:

- Alkatea ez dagoenean haren ordezkari izatea, norberaren eskuordetzearen arloan.
- Udalbatzaren eta Tokiko Gobernu Batzarraren gai zerrendan gaiak sartzea proposatzea.
- Gainerako ordezkariekin bilerak egitea eta haiekin harremanetan egotea, informazioa elkartrukatzeko eta koordinaturik egoteko.
- Alkateari jardun irizpide eta helburu orokorrak proposatzea, bai eta proiektu handien programazio orokorra ere.
- Alkateak ezarritako helburu orokorrak betetzera zuzendutako ekin tzak eta helburu espezifikoak finkatzea.
- Arloko antolakuntza egiturako aldaketak alkateari proposatzea.
- Eskuordetutako alorrari dagozkion baliabide fisikoak eta giza baliabideak zuzentzea, bultzatzea eta kontrolatzea, udalaren helburuak hobeto betetzeko.
- Eskuordetutako jardueraren alorrean erabakitako lan, zerbitzu eta hornikuntzak udalaren izenean zuzentzea, bultzatzea eta ikuskatzea.
- Bere eskuordetze arloari dagozkion lege, ordenantza, erregelamendu eta udal erabakiak betearaztea.

2.- Administrazio egintzei lotutako eskumenak.

- Bere eskumeneko arloan 24.040 eurorainoko gastuak egin ahal izatea, aurrekontuan baimendutako kredituen barruan.
- Bere eskumeneko arloan 24.040 eurotik beherako era guztietako kontratazio eta emakidak onartzea, aurrekontuan horretarako nahiko kontsignaziorik baldin badago.
- Obra eta zerbitzu egitasmoak onartzea, haiek kontratatzeke eta emateko ahalmena badu eta aurrekontuan aurreikusita badaude.
- Bere eskuordetzearen arloan beharrezkoak diren ebazpenezko nahiz izapidezko administrazio egintzak diktatzea, beste organoren bati ez badagokio.
- Lege, erregelamendu, ordenantza eta udal erabakiekiko arau hausteak zigortzea, zeregin hori beste organoren bati ez badagokio.
- Eskuordetzearen indarrez egindako administrazio egintzen aurkako berraztertze errekursoak ebaztea.
- Edozein udal organori jarduketa proposamenak egitea.

3.- Eskuordetzea mugagabea da eta, onartua izanez gero, Ebazpen hau hartzen den egunean hasi eta, bukatu berriz, ebazpena ezesten denean, alkatearen agintaldia bukatzen denean edo uko egiteko idazkia aurkezten denean bukatuko da.

4.- Alkateak eskuordetzea ezeztatu ahal izango du.

5.- Alkateak edozein momentuan bereganatu ahal izango du eskuordetutako eskumena, administrazio prozedura erkideari buruz indarrean dagoen legeriaren arabera bidezko jotzen duen hedaduran.

6.- Kanpoan 24 ordutik gora eman behar izanez gero, asteburuak alde batera utzita, alkateari idatziz jakinarazi beharko zaio. Tarte horretan alkateak berreskuratuko ditu eskuordetutako eginkizun eta ahalmen guztiak.

7.- Alkateari dagokio zinegotzi-delegatuen arteko eskumen auziak konpontzea.

8.- Zinegotzi-delegatuen egitekoa izango da alkateari eskuordetuta daukaten eskumenaren kudeaketaren inguruko eta eskuordetzearen indarrez emandako egintza edo xedapenen inguruko informazio zehatza ematea.

9.- Zinegotzi-delegatuek garrantzi bereziko erabakiak hartu aurretik alkateari horien berri eman behar diote.

10.- Zinegotzi-delegatuek administrazio egintzak Ebazpen bidez emango dituzte, eta alkateak emandakotzat joko dira.

11.- Administrazio egintza bat diktatzen duen ebazpenetan espresuki jasoarazi behar da alkateak horretarako emandako eskuordetzeaz baliaturik diktatuak direla.

12.- Berraztertzeo errekurtsioak ebazteko ahalmena.

**HIRUGARRENA.-** Ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da.

**LAUGARRENA.-** Udalbatzari ebazpen honen berri eman behar zaio

## **1.5.- KARGUA DEDIKAZIO PARTZIALAREKIN BETETZEKO IZENDAPENAK ETA ORDAINSARIAK.**

### **2023DEKR1880**

**DEKRETUA.-** Hernanin, bi mila eta hogeitahiruko ekainaren 19an

Hernaniko Udalaren 2019ko Aurrekontua gauzatzeko oinarrien 11. oinarria ikusita,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 21.1 artikulua a) eta f) atalen bidez ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

### **ERABAKI DUT:**

**LEHENA.-** Beren kargua arduraldiaz betetzeko izendatzea gobernu taldeko Udalbatzako kideak, jaso beharreko urteko ordainsariak honako hauek direlarik:

**Itsaso Lekuona Legorburu:** kulturartekotasuna, lankideta eta berdintasuna

- Arduraldi osoa (% 100)
- Urteko ordainsari gordina: 38.718,40 €, 14 soldatatan jasotzeko.
- Noiztik aurrera: 2023-06-17

**Patxi Ibaguren Etxeberria:** tokiko garapena, turismoa eta merkataritza

- Arduraldi osoa (%100)
- Urteko ordainsari gordina: 38.718,40€, 14 soldatatan jasotzeko.
- Noiztik aurrera: 2023-06-17

**Oier Agirresarobe Lizaso:** euskara, hezkuntza, partehartzea eta etxebizitza

- Arduraldi osoa (%100)
- Urteko ordainsari gordina: 38.718,40€, 14 soldatatan jasotzeko.
- Noiztik aurrera: 2023-06-17

**Aitor Lukas Solano:** gazteria.

- Arduraldi osoa (%100)
- Urteko ordainsari gordina: 38.718,40€, 14 soldatatan jasotzeko.
- Noiztik aurrera: 2023-06-22

Gastu hori Hernaniko Udalaren aurrekontuko partida honen kontura kontabilizatuko da:

1 01.100.01.912.00 "Gobernu organoen oinarrizko ordainketak eta bestelako ordainsariak"

**BIGARRENA.-** Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrean Oier Agirresarobe Lizaso, Patxi Ibaguren Etxeberria, Itsaso Lekuona Legorburu eta Aitor Lukas Solanoren afiliazioa eta alta eskatzea. Udalak hartuko ditu bere gain Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean enpresei beren zerbitzura lan egiten duten langileei dagokienez jartzen dizkieten betebeharrak.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**LAUGARRENA.-** Erabaki honen berri Udalbatzari ematea.

## **1.6.- BEHIN-BEHINEKO LANGILEEN IZENDAPENAK. 2023DEKR1880, 2023DEKR1881, 2023DEKR1882**

**DEKRETUA:** Hernanin, bi mila eta hogeitahiruko ekainaren hemeretzian

Osoko Bilkurak erabaki zuen behin-behineko langileentzat Udaltzaingoaren Zuzendari lanpostu bat eratzea udaleko plantillan eta lanpostuen zerrendan.

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 104 artikulua eta indarrean dagoen Euskal Funtzio Publikoaren Legeak ezarritakoa kontuan hartuta.

Aurreko guztia kontuan harturik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 h) artikuluan eman zaizkidan ahalmenen egikaritzan, honako hau:

#### **ERABAKI DUT:**

1.- Andoni Mirena **Pikabea Lertxundi** udal honetako behin-behingo langilea izendatzea, baldintza hauetan:

- Lanpostua: Udaltzaingoko Zuzendaria.
- Noiztik aurrera: 2023-06-17
- Urteko ordainsari gordina: 51.670,78 14 soldatatan jasotzeko.
- Lanaldia: Osoa.

2.- Aipatutako langileak eginkizun horiek utzi beharko ditu Alkatetza honek ebazpen bidez hala erabakitzen duenean eta, nolana ere, nire kargua uzten dudanean edo agintaldia bukatzen denean.

3.- Erabaki honen laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta interesatuari honen berri ematea.

4.- Hurrengo Osoko Bilkuran ebazpen honen berri ematea.

**DEKRETUA:** Hernanin, bi mila eta hogeitahiruko ekainaren 19an

Osoko Bilkurak erabaki zuen behin-behingo langileentzat alkatearen idazkari lanpostu bat eratzea udaleko plantillan eta lanpostuen zerrendan.

Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 104 artikulua eta indarrean dagoen Euskal Funtzio Publikoaren Legeak ezarritakoa kontuan hartuta.

Aurreko guztia kontuan harturik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 h) artikuluan eman zaizkidan ahalmenen egikaritzan, honako hau:

#### **ERABAKI DUT:**

1.- **Araitx Aiar Urruzola** udal honetako behin-behingo langilea izendatzea, baldintza hauetan:

- Lanpostua: Alkatearen idazkaria.
- Noiztik aurrera: 2023-06-17
- Urteko ordainsari gordina: 33.993,68 euro, 14 soldatatan jasotzeko.
- Lanaldia: osoa.

2.- Aipatutako langileak eginkizun horiek utzi beharko ditu Alkatetza honek ebazpen bidez hala erabakitzen duenean eta, nolana ere, nire kargua uzten dudanean edo agintaldia bukatzen denean.

3.- Erabaki honen laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta interesatuari honen berri ematea.

4.- Hurrengo Osoko Bilkuran ebazpen honen berri ematea.

**DEKRETUA:** Hernanin, bi mila eta hogeitahiruko irailaren hiruan.

Hernaniko Udal Batzarrak, 2019ko uztailaren 23an egindako Osoko Bilkuran erabaki zuen behin-behineko langileentzat komunikazio arduradun lanpostu bat sortzea udaleko plantillan eta Langileen Lanpostuen Zerrendan.

Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 104. artikulua eta indarrean dagoen Euskal Funtzio Publikoaren Legeak ezarritakoa kontuan hartuta.

Aurreko guztia kontuan harturik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 h) artikuluan eman zaizkidan ahalmenen egikaritzan, honako hau:

#### **ERABAKI DUT:**

1.- **Cristina Martin Encinas** udal honetako behin-behineko langilea izendatzea, baldintza hauetan:

- Lanpostua: Komunikazio arduraduna.
- Noiztik aurrera: 2023-06-17
- Urteko ordainsari gordina: 36.951,74euro, 14 soldatatan jasotzeko.
- Lanaldia: osoa.

2.- Aipatutako langileak eginkizun horiek utzi beharko ditu Alkatetza honek ebazpen bidez hala erabakitzen duenean eta, nolana ere, nire kargua uzten dudanean edo agintaldia bukatzen denean.

3.- Erabaki honen laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta interesatuari honen berri ematea.

4.- Hurrengo Osoko Bilkuran ebazpen honen berri ematea.

## **1.7.- OPOSIZIOAREN ARDURALDIAK.2023DEKR1884, 2023DEKRETUA1885, 2023DEKRETUA1886**

**DEKRETUA:** Hernanin, 2023/06/19

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak 33. artikuluan ondokoa xedatzen du:

“1.– Hamar mila biztanletik gorako udalerriek bermatu egingo dute oposizioko zinegotzi batek, gutxienez, arduraldi eskusiboa izango duela, udal-gobernua kontrolatzeko eta fiskalizatzeko lana behar bezala egin ahal izateko.

3.– Edozelan ere, oposizioak duen eskubide hori hauteskunde-emaitzen arabera ordezkari-kopuru handiena duen alderdi edo koalizioari dagokio, edo, halakorik ez dagoenean, indar politiko bozkatuenari.”

Aurrekontua gauzatzeko arauaren 11.5. eta 6. atalak honela diote:

“11.5.- Oposizioko zinegotzi batek, gutxienez, arduraldi eskusiboa izango du, udal-gobernua kontrolatzeko eta fiskalizatzeko lana behar bezala egin ahal izateko. Edozelan ere, oposizioak duen eskubide hori hauteskunde emaitzen arabera ordezkari kopuru handiena duen alderdi edo koalizioari dagokio, edo, halakorik ez dagoenean, indar politiko bozkatuenari. Boto-berdinketa egonez gero, indar politiko biek txandaka baliatuko dituzte eskubide horiek, agintaldiko epe berdinetan.

11.6.- Oposizioko taldean dedikazio eskusiboa duen zinegotziaren lansaria, gobernu taldeko kideei dedikazio eskusiboagatik dagokiena aplikatuko zaio, %10eko murrizketarekin, hilerio 2.091,08 € gordin (urteko gordina, 29.275,09 €). Artikulu honetan jasotako soldata guztiak, urtero egokituko dira Langilegoari aplikatutako igoera kopuruen baitan.

Aurrekontua gauzatzeko arauan OPOSIZIOKO ZINEGOTZIEN SOLDATAri buruz honako hau aipatzen du:

“Dedikazioa duten zinegotziei, Udalean liberazio bat hartzeko utzi behar izan duten lanaren soldata bermatuko zaie”

Hori horrela Andoni Amonarraizek, liberatu aurretik zuen soldata jaso beharko luke

Aurreko guztia kontuan harturik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 h) artikuluan eman zaizkidan ahalmenen egikaritzan, honako hau:

### **ERABAKI DUT:**

**LEHENA** Andoni Amonarraiz Gomez izendatzea bere kargua dedikazio osoz betetzen ari den oposizioko zinegotzia 100% dedikazioz betetzeko, jaso beharreko urteko ordainsariak honako hauek direlarik:

-Urteko ordainsari gordina: 42.108,50 euro, 14 soldatatan jasotzeko.

-Noiztik aurrera: 2023-06-17

Gastu hori Hernaniko Udalaren aurrekontuko partida honen kontura kontabilizatuko da:

1.01.100.01.912.00 “Gobernu organoen oinarriko ordainketa bestelako ordainsariak”.

**BIGARRENA.**- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrean Andoni Amonarraiz Gomez afiliazioa eta alta eskatzea. Udalak hartuko ditu bere gain Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrek enpresei beren zerbitzura lan egiten duten langileei dagokienez jartzen dizkieten betebeharrak.

**HIRUGARRENA.**- Erabaki honen berri Udalbatzarrari ematea.

**DEKRETUA:** Hernanin, bi mila eta hogeitairuko ekainaren 19an

Udalbatza Osoak uztailaren 23an, Hernaniko Udalaren 2019ko Aurrekontu Orokorra Gauzatzeko Arauaren aldaketa espedienteari hasierako onarpena eman zion. Jendaurreko epea amaitu da, eta erabaki horren aurka inolako alegaziorik aurkeztu ez denez, behin betiko onartutzat jotzen da, indarrean dagoen arautegiak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, ezartzen duenarekin bat etorritik.

Aurrekontua gauzatzeko arauaren 11.1 artikulua honela dio:

11.1.- Erabateko dedikazioa izango duten gehienezko lanaldi kopuruak hauek izango dira:

- Alkatea. 1

- Gobernu Erantzukizuna duten zinegotziak (alkateorde edo delegatuak). 6

- Gobernu Erantzukizuna ez duten zinegotziak. 3

Aurreko guztia kontuan harturik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 h) artikuluan eman zaizkidan ahalmenen egikaritzan, honako hau:

**ERABAKI DUT:**

**LEHENA** Ricardo Crespo Rubio izendatzea bere kargua %33 dedikazioz betetzeko, jaso beharreko urteko ordainsariak honako hauek direlarik:

- Urteko ordainsari gordina: 11.499,46 euro, 14 soldatatan jasotzeko.
- Noiztik aurrera: 2023-06-17tik aurrera

Gastu hori Hernaniko Udalaren aurrekontuko partida honen kontura kontabilizatuko da:

1.01.100.01.912.00 "Gobernu organoen oinarritzko ordainketa bestelako ordainsariak".

**BIGARRENA.**- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrean Ricardo Crespo Rubiori alta afiliazioan ematea. Udalak hartuko ditu bere gain Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrek enpresei beren zerbitzura lan egiten duten langileei dagokienez jartzen dizkieten betebeharrak.

**HIRUGARRENA.**- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**LAUGARRENA.**- Erabaki honen berri Udalbatzarrari ematea.

**DEKRETUA.** Hernanin, bi mila eta hogeitairuko ekainaren 19an.

Udalbatza Osoak uztailaren 23an, Hernaniko Udalaren 2019ko Aurrekontu Orokorra Gauzatzeko Arauaren aldaketa espedienteari hasierako onarpena eman zion. Jendaurreko epea amaitu da, eta erabaki horren aurka inolako alegaziorik aurkeztu ez denez, behin betiko onartutzat jotzen da, indarrean dagoen arautegiak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, ezartzen duenarekin bat etorritz.

Aurrekontua gauzatzeko arauaren 11.1 artikulua honela dio:

11.1.- Erabateko dedikazioa izango duten gehienezko lanaldi kopuruak hauek izango dira:

- Alkatea. 1
- Gobernu Erantzukizuna duten zinegotziak (alkateorde edo delegatuak). 6
- Gobernu Erantzukizuna ez duten zinegotziak. 3

Aurreko guztia kontuan harturik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 h) artikuluan eman zaizkidan ahalmenen egikaritzan, honako hau:

**ERABAKI DUT:**

**LEHENA.** Lurdes López Gorrotxategi izendatzea bere kargua % 33 dedikazioz betetzeko, jaso beharreko urteko ordainsariak honako hauek direlarik:

- Urteko ordainsari gordina: 11.499,46 euro, 14 soldatatan jasotzeko.
- Noiztik aurrera: 2023-06-17tik aurrera

Gastu hori Hernaniko Udalaren aurrekontuko partida honen kontura kontabilizatuko da:

1.01.100.01.912.00 «Gobernu organoen oinarritzko ordainketa bestelako ordainsariak».

**BIGARRENA.** Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrean Lurdes López Gorrotxategiri alta afiliazioan ematea. Udalak hartuko ditu bere gain Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrek enpresei beren zerbitzura lan egiten duten langileei dagokienez jartzen dizkieten betebeharrak.

**HIRUGARRENA.** Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**LAUGARRENA.** Erabaki honen berri Udalbatzarrari ematea.

**Alkatea:** Arratsalde on. Seiak dira eta hasiera emango diogu plenoari.

Legegintzaldi hasi berria, aurreko larunbatean esan genuen, lanean hasi behar genuela. Eta zertarako gehiago itxaron plenoa egiteko.

Legegintzaldiko lehenengo plenoan beti, lau urtero, izaten da antolakuntza plenoa. Udala antolatzeko hainbat erabaki hartu behar ditugu eta bi motatako erabakiak dira: batzuk alkate dekretuz hartu direnak jada, eta beste batzuk hemen erabaki behar ditugunak.



*Egingo duguna da, beti egiten dugun bezala, lehenengo berri-emateak eta ondoren erabaki behar diren puntuetara pasako gara.*

*Alkate dekretuz hartutako guztiak nola iruditzen zaizue, denak aipatuko ditut eta gero erronda irekiko dugu edo banan bana joango gara aipatzen?*

*Bale, zerrenda guztia egingo dut, orduan, eta gero zerbait baldin bada, pasako dizuet hitza.*

*Bale, zerrenda guztia egingo dut, orduan, eta gero zerbait baldin bada, pasako dizuet hitza.*

*Hartu den lehen erabakietako bat izan da Tokiko Gobernu Batzarraren osaketarena. Hau aurrekoan udal talde guztiak hitz egin zen, proposamena luzatu zen eta udal talde guztiak aipatu zenuten Tokiko Gobernu Batzarrean parte hartuko zenuela eta, ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarraren osaketa horrela geldituko litzateke: alkateaz gain, EH Bildu udal taldetik Itsaso Lekuona, Patxi Ibarguren, Ainara Atorrasagasti eta Aitor Lukas izango lirateke kideak; EAJ-PNVtik Andoni Amonarraiz; PSOEtik Ricardo Crespo; eta Elkarrekin-Podemosek Lurdes Lopez.*

*Tokiko Gobernu Batzarrean alkateak eta alkateordeak hartzen dute parte, alkateordeen izendapena ere egin dugu dekretu bidez. Kasu honetan lau alkateorde egongo dira, urrenkera honetan: lehenengo alkateordea Itsaso Lekuona Legorburu izango da, bigarrena Patxi Ibarguren Etxeberria, hirugarrena Ainara Atorrasagasti Urizar eta laugarrena Aitor Lukas Olano.*

*Horrekin lotuta, alkatearen dedikazio osoa izango denaren berri-ematea, erregimen horretan egongo naizela kasu honetan, soldata gordina ere dekretuan jasotzen da, orain arte izan den soldata berdina eta legeak esaten duen bezala, webgunean ere publiko egingo da soldataren kopurua.*

*Alkate eskumen batzuk, aurrekoetan bezala, delegatu egingo dira. Kasu honetan delegazio kopuru batzuk edo batzuk dakarzkigu dekretu honetan, gobernu honen osaketa pixkanaka joango garelako egiten. Hauek dira jada egin ditugunak, dekretu hauek jada eginda daude, delegazio hauek indarrean sartu dira eta besteren bat aste honetan bertan sartuko da. Datozen asteetan delegazio gehiago jarriko ditugu martxan eta horien berri ematen joango gara hurrengo plenoetan.*

*Orain arte martxan jarri ditugun edo dekretuaren bidez eskuordetu direnak hauek izan dira: Kulturartekotasuna, Lankidetzeta eta Berdintasun arloetako eskuordetza edo delegazioa Itsaso Lekuona Legorburuk izango du; Tokiko Garapena, Turismoa eta Merkataritza arloko delegazioa Patxi Ibarguren Etxeberriak, Hezkuntza, Euskara, Parte-hartzea eta Etxebizitza arloetako delegazioa Oier Agirresarobe Lizasok eta Gazteria arloko delegazioa Aitor Lukas Olanok.*

*Horrekin lotuta ere gobernu ardura duten kideen edo zinegotzien izendatzea eta hauen jardunak edo arduraldiak aipatzea. Gure aurrekontu arauak hala desberdintzen duelako: gobernu ardura daukagunon dedikazioak eta gobernu ardura ez daukatenen dedikazioak. Kasu honetan, gobernu ardura daukatena lehen aipatu ditudan delegazioekin lotuta: bai Itsaso Lekuonak, Patxi Ibarguren, Oier Agirresarobe eta Aitor Lukasek dauzkaten delegazioekin lotuta bakoitzak %100eko arduraldia izango du, arduraldi osoa, alegia.*

*Horrekin batera, gizarte segurantzaren altak emango dira.*

*Gobernuaren jardunarekin lotuta, behin-behineko pertsonalaren izendapena. Orain arte egin den moduan, alkatearen idazkaria Aritz Aira Urruzola izendatu da eta bere lanaldi osoan eta bere soldata gordina ere orain arte izandako bera izango da eta informazio hau guztia ere*



publikatuko da; Komunikazio arduraduna Kristina Martin Encinas izango da; eta Udaltzaingoa zuzendaria Andoni Mirena Pikabea Lertxundi.

Azken honekin esan aurreko pleno batean ere aipatu nuela Udaltzaingoko zuzendariaren postua ordezkatzeko duela ofizialarenak. Prozesu hori bukatzeaz da, pasa den astean jada proba guztiak amaitu dituzte. Beraz, Udaltzaingoko zuzendaria bitarte horretan izango da, baina prozesu osoa bukatzen denean karrerako funtzionarioa izango den ofizialak ordezkatzeko du Udaltzaingoko zuzendaria.

Gobernu ardurak ez daukazuen zinegotzien kasuan egin diren dekretuak, izendapenak eta liberazioak. Lurdes Lopez Gorrotxategi %33ko dedikazioan egongo da, Ricardo Crespo Rubio ere %33ko dedikazioan eta Andoni Amonarraiz Gomez %100eko dedikazioan.

Hauek dira, beraz, Udalaren antolaketaren harira emandako dekretuak. Hemen berri eman dugunak. Ez dakit hauen inguruan badagoen zerbait aipatzeko.

## **2.- TALDE POLITIKOAK ERATZEA ETA BATZORDEETAN PARTE HARTZEKO PROPORZIONALTASUNA.**

**Alkatea.-** Ez badago ezer, bigarren puntura pasako gara. Hor bai hemen erabakiak hartzea tokatzeko zaigu.

Talde politikoak eratzea eta batzordeetan parte hartzeko proportzionaltasuna da bigarren puntua. Esan, behin udal korporazioa osatu dugunean udal talde bakoitza eratu behar gara formalki. Ostiral arte daukagu hori egiteko aukera eta talderen bat uste dut falta dela oraindik izendapena egiteko... Ez, esaten didate listo, udal talde guztiak osatuta daudela eta bertan bozeramailea eta ordezkaria izendatu behar dira.

Horrekin lotuta, orain erabaki behar duguna da batzorde informatzaileetan ze proportzionaltasunean edo ze ordezkartzat jardungo dugun. Batzorde informatzaileek errespetatu behar dute Udal osoko bilkurak daukan proportzionaltasuna; eta hori kontutan izanda, honako osaketa hau proposatzen dugu: EH Bilduk 5 kide izatea, EAJ-PNVk 2, PSOEk 1 eta Elkarrekin-Podemos Orain Hernanik ordezkari 1 izatea.

**Hau bozkatu egin behar dugu. Aipatutako osaketa honen 5-2-1-1 honen aldeko botoak? Aho-batez onartuta gelditzen da.**

### **HARTUTAKO ERABAKIA**

**2.1.-** Jakinarazi da ondoko Udal Talde Politiko hauek eratu direla, 1986ko azaroaren 28ko 2568/1986, Errege Dekretuaren Funtzionamendu eta Antolamendu Arandia onartzen duenaren 23, 24 eta 25 artikuluetan araututakoarekin bat etorritik:

EH BILBU

Bozeramailea: Itsaso Lekuona Legorburu and.

Ordezkoa: Xabier Lertxundi Asteasuinzarra jn.

EUSKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO

Bozeramailea: Andoni Amonarraiz Gómez jn.

Ordezkoa: Myriam Vázquez Vecino and.

SOCIALISTAS VASCOS-EUSKAL SOZIALISTAK

Bozeramailea: Ricardo Crespo Rubio jn.

Ordezkoa: María Jesús Ruiz Ochoa and.

ELKARREKIN PODEMOS ORAIN HERNANI!

Bozeramailea: Jaione Aristregui Cao, and.

Ordezkoa: Lurdes López Gorrotxategi and.

**2.2.-** Alkate-lehendakari jaunak honako proportzionaltasun hau proposatu du Udalbatzarraren batzordeetarako:

\* Udalbatzarraren Batzordeak:

1. BILDU: 5
2. EAJ – PNV: 2
3. Elkarrekin Podemos- Orain Hernani: 1
4. PSE-EE (PSOE): 1

### 3.- BATZORDE INFORMATZAILEAK SORTZEA.

**ALKATEA.**- Aipatu dugu bigarren puntuan batzorde informatzaileen osaketa nola egingo den. Orain ze batzorde informatzaile izango diren.

Hemen aurreko legegintzaldian aldaketa garrantzitsu bat egin genuen hauen osaketaren inguruan. Forma horrekin jarraitzea planteatzen dugu. Hiru batzorde handi eta batzorde horietan departamendu desberdinetako gaiak landuko lirateke. Hortaz, Antolaketa Batzordea izango litzateke bat. Bertan antolakuntza, pertsonala, ogasuna, kontu batzorde berezia, ondarea, administrazio orokorra, idazkaritza, segurtasuna eta modernizazio arloetako gaiak aztertuko dira. Bigarrena, Tokiko Garapen Batzordea izango litzateke. Hirigintza, ingurumena, zerbitzu publikoak, merkataritza, turismoa, enplegua eta ekonomia sozialeko departamenduetako gaiak landuko dira. Eta hirugarrena, Herritarrentzako Zerbitzuak Batzordea izango litzateke. Bertan euskara, hezkuntza, kultura, jarduera fisikoa, kirola, berdintasuna, gazteria, kulturartekotasuna, internazionalismoa, zerbitzu sozialak, parte-hartzea, tokiko agenda 30 eta mugikortasun arloko gaiak landuko dira.

Hau da orain arte erabili dugun funtzionamendua edo antolaketa. Hemen egin behar duguna da onartzea antolaketa hau eta orain udal talde bakoitzak adierazi beharko luke zein kidek parte hartuko duen batzorde bakoitzean. Zein kide izango den eta kide bakoitzaren ordezkoa zein izango den. Hori idatziz aurkeztu behar da.

Gero, lehenengo batzorde horietan erabakiko dugu eguna, maiztasuna eta ordua.

**Hortaz, bozkatzera pasako gara. Udaleko batzorde informatzaile hauen edo antolaketa honen aldeko botoak? EH Bildu, EAJ eta Elkarrekin-Podemos udal taldeenak. Kontrako botoak? Ez dago. Abstentzioak? PSOE udal taldearenak.**

#### Bozketa

	Kopurua	Izen-abizenak
<b>ALDE</b>	19	Xabier Lertxundi Asteasuinzarra. Patxi Iburguren Echeverria Itsaso Lekuona Legorburu Ainara Atorrasagasti Urizar Aitor Lukas Solano Asier Mingo Arruabarrena jn Amaia Miner Canflanca Aitor Huici Izagirre Urko Lazcoz Fernandez Oier Agirresarobe Lizaso Miren Kistiñe Rodriguez Polaina Andoni Amonarraiz Gómez José Antonio Cuesta Solé Blanca Alberro Aranzasti Miryam Vazquez Vecino Mikel Gurutzeaga Zubillaga Ismael Ganchegui Gonzalez Ricardo Crespo Rubio María Jesús Ruiz Ochoa Jaione Aristregui Cao

		Lurdes López Gorrotxategi
<b>KONTRA</b>	<b>0</b>	
<b>ABSTENTZIOAK</b>	<b>2</b>	Ricardo Crespo Rubio jn. María Jesús Ruiz Ochoa and.

## Hartutako erabakia

Ikusirik Udal Arautegi Organikoaren 16. artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legeko 20. artikulua.

Kontuan izanda Toki Entitateen antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen 2568/86 Errege Dekretuko 29, 38, 124, 125 eta 134 eta hurrengo artikulua diotena,

Alkateak Udalbatzarrari akordio hau hartu dezala proposatzen dio:

**Lehena.-** Aipatuko diren batzordeak sortu, guztiak iraunkor izaerarekin, eta ondoan adierazte diren eskuduntza eta funtzioekin:

### **Bat.- ANTOLAKETA BATZORDEA**

Antolakuntza, Pertsonala, Ogasuna, Kontu Batzorde Berezia, Ondarea, Administrazio Orokorra, Idazkaritza, Segurtasuna eta Modernizazioa arloetako gaiak aztertuko dituen, betiere, Udalbatza eta Tokiko Gobernu Batzarreko eskumenekoak direnean, edota Alkateak horrela erabakitzen duenean.

### **Bi.- TOKIKO GARAPEN BATZORDEA**

Hirigintza, Ingurumena, Zerbitzu Publikoak, Merkataritza, Turismoa, Enplegua eta Ekonomia Soziala arlo edo sailtako gaiak aztertuko dituen, betiere, Udalbatza eta Tokiko Gobernu Batzarraren eskumenekoak direnean, edota Alkateak horrela erabakitzen duenean.

### **Hiru.- HERRITARRENTZAKO ZERBITZUAK BATZORDEA.**

Euskara, Hezkuntza, Kultura, Jarduera Fisikoa, Kirola, Berdintasuna, Gazteria, Kulturartekotasuna, Internazionalismoa, Zerbitzu Sozialak, partehartzea, Tokiko Agenda 30, Mugikortasuna arlo edo sailtako gaiak aztertuko dituen, beti ere, Udalbatza eta Tokiko Gobernu Batzordeko eskumenekoak direnean, edota Alkateak horrela erabakitzen duenean.

**Bigarrena.-** Eratutako talde politikoko bakoitzaren bozeramaileak, idatziz jakinaraziko dio Alkateari nor den (diren) bere taldeko ordezkari bezala parte hartuko duena(k) batzorde bakoitzean eta nor den(diren) bere ordezkaria(k).

**Hirugarrena.-** Alkatea, Batzorde Informatzaile guztien Lehendakaria denez, erabakiko du Dekretu bitartez lehendakaritza hori delegatzen duen eta behar bada noren izenean egiten duen. Berdin, Dekretuan nor airtuko den idazkari gisa batzorde bakoitzean ere erabakiko du.

## **4.- KONTRATAZIO-MAHAIA ERATU ETA KIDEEN IZENDAPENA.**

**Alkatea.-** Hurrengo organo eraketa kontratazio mahaiarena da.

*Hemen legeak aipatzen duena da pasa den legegintzaldian ere lege aldaketa bat egon zen eta lege horrek esaten zuena zen kontratazio mahaiaren dagoen politiko bakoitzeko hiru teknikok egon behar dutela. Hor ikusi genuen praktikotasun aldetik politiko bakarra egotea zela efektiboena edo errazena, hiru teknikari egon ahal izateko. Beraz, egiten dugun proposamena da ni neroni izatea kontratazio mahaiako kide eta gero lehen mahaikidea izango litzateke kontratazio sailerko eta administrazio orokorreko teknikaria, bigarren mahaikidea udal idazkaria eta hirugarren mahaikidea udal kontu-hartzailea. Lehen esan dugun proportzio horretan: politikari bat eta hiru tekniko. Eta idazkaria izango litzateke idazkaritzako administrari bat.*

*Honekin esan kontratazio mahaiak daukan informazio guztia, espediente guztiak sarean daudela eta kontratazio profila dela Eusko Jaurlaritzak ematen duen plataforma bat eta hori dena irekia dela eta ikusgai dagoela. Edozein zalantza etab. kontsulta daitezke.*

**Bozkatzera** pasako gara: kontratazio mahaiaren eratzearen aldeko botoak? EH Bildu, EAJ eta PSOE udal taldeenak. Kontrako botoak? Ez dago. Abstentzioak? Elkarrekin-Podemos Orain Hernani udal taldearenak.

	Kopurua	Izen-abizenak
<b>ALDE</b>	19	Xabier Lertxundi Asteasuinzarra. Patxi Iburguren Echeverria Itsaso Lekuona Legorburu Ainara Atorrasagasti Urizar Aitor Lukas Solano Asier Mingo Arruabarrena jn Amaia Miner Canflanca Aitor Huici Izagirre Urko Lazcoz Fernandez Oier Agirresarobe Lizaso Miren Kistiñe Rodriguez Polaina Andoni Amonarraiz Gómez José Antonio Cuesta Solé Blanca Alberro Aranzasti Miryam Vazquez Vecino Mikel Gurutzeaga Zubillaga Ismael Ganchegui Gonzalez Ricardo Crespo Rubio María Jesús Ruiz Ochoa Ricardo Crespo Rubio jn. María Jesús Ruiz Ochoa and.
<b>KONTRA</b>	<b>0</b>	
<b>ABSTENTZIOAK</b>	<b>2</b>	Jaione Aristregui Cao Lurdes López Gorrotxategi

## HARTUTAKO ERABAKIA

Ikusita Sektore Publikoa arautzen duen 9/2017 Legegilearen 320. artikulua ezarritakoa, Kontratazio Organua Udaltzarraren denerako, Kontratazio Mahaiaren osatura hau proposatzen du Alkateak:

Presidentea: Xabier Lertxundi Asteasuinzarra edo eskuordetzen duen pertsona.

Lehen mahaikidea: Kontratazio saileko Administrazio Orokorreko Teknikaria.

Bigarren mahaikidea: Udal Idazkaria.

Hirugarren mahaikidea: Udal kontu-hartzailea.

Idazkaria: Idazkaritzako administraria.

Ordezkoa: Idazkaritzako administraria.

Besteak: Kasu bakoitzean gaien arabera beharrezkoak diren funtzionario edo aholkulariei deituko zaie, ahotsa izango dute baina ez botorik bere jardueran.

### 5.- UDALBATZARREN ORDEZKARIAK IZENDATZEA ERAKUNDE HAUETARAKO:

**Alkatea**.- Bosgarren puntura pasako gara. Hemen ere gauza bera proposatuko nuke. Ea zer iruditzen zaizuen, baina puntuz puntu bozkatu beharrean, proposatzen dugu nik aipatzea puntu bakoitza eta ondoren bozka egitea, baldin eta kontrakorik esaten ez baduzue eta punturen batean zerbait berezia badago.

**Andoni Amonarraiz**: Arratsalde on.

Gu guztietan abstenituko gara. Guk ez daukagu arazorik.

**Alkatea:** Bale. Orduan denak zerrendatuko ditut eta gero bukaeran egingo dugu bozketa.

Hemen jakina da, Udala bada beste udalaz gaindiko beste erakunde batzuetako parte eta udalbatza honek erakunde horietan Udalak izango duen ordezkari izendatu behar du.

Añarbeko Mankomunitatean titularrak Ainara Atorrasagasti eta Urko Lazkoz izango lirateke, ordezkoak Patxi Ibarguren eta Aitor Lukas.

Sanmarko Mankomunitatean titularrak Ainara Atorrasagasti eta Urko Lazkoz, eta ordezkoak Patxi Ibarguren eta Aitor Lukas.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan titularra Ainara Atorrasagasti eta ordezkoa Urko Lazkoz.

Udalbiltzaren titularra Itsaso Lekuona izango litzateke eta ordezkoa ni, Xabier Lertxundi.

Euskal Fondoan titularra Itsaso Lekuona eta ordezkoa ni, Xabier Lertxundi.

Aiako Harriak Parke Naturalean titularra Ainara Atorrasagasti eta ordezkoa Urko Lazkoz.

Behemendin titularra Ainara Atorrasagasti eta ordezkoa Urko Lazkoz.

Beterri Kostako Industrialdean titularra ni, Xabier Lertxundi eta ordezkoa Ainara Atorrasagasti.

Garbitania Zero Zaborren titularra Urko Lazkoz eta ordezkoa Ainara Atorrasagasti.

Hobeki elkartean titularra Urko Lazkoz eta ordezkoa Ainara Atorrasagasti.

Beterri-Buruntza Lankidetza Hitzarmeneko Batzorde Kudeatzailean titularrak ni, Xabier Lertxundi eta Patxi Ibarguren eta ordezkoak Asier Mingo eta Aitor Lukas.

Beterri-Buruntza Mankomunitateko Batzar Orokorreko titularrak ni, Xabier Lertxundi eta Patxi Ibarguren eta ordezkoak Asier Mingo eta Aitor Lukas. Hor, badakizue Mankomunitatea eratu bitartean sei udalen arteko hitzarmen bat eduki genuela, nahiz eta Mankomunitatea eratu, oraindik programa batzuk badaude hitzarmen horren baitan. Orduan, oraindik jarraitu behar dugu hori indarrean edukitzen eta ordezkariak izendatzen.

UEMan sartu berri gara eta UEMAn ere bost pertsona izendatu behar ditugu. Titularrak Xabier Lertxundi, Asier Mingo, Oier Agirresarobe, Aitor Huizi eta Itsaso Lekuona eta ordezkoak Ainara Atorrasagasti, Amaia Miner, Urko Lazkoz, Aitor Lukas eta Patxi Ibarguren.

Eta, azkenik, Enherkom, energia berriztagarrien komunitateko titularra Urko Lazkoz Fernandes izango litzateke.

Honekin, beraz, Udalak parte hartzen duen erakunde desberdinetako ordezkari izendatzea proposamena hau da. Honen inguruan zerbait aipatzeko? Ez badago ezer, bozkatzea pasako gara. Aipatu diren erakundeetako izendapen hauek aldeko botoak? EH Bildu udal taldearenak. Kontrako botoak? Ez dago kontrako botorik. Abstentzioak? EAJ, PSOE eta Elkarrekin-Podemos Orain Hernani udal taldeenak.

	Kopurua	Izen-abizenak
<b>ALDE</b>	11	Xabier Lertxundi Asteasuinzarra. Patxi Ibarguren Echeverria Itsaso Lekuona Legorburu Ainara Atorrasagasti Urizar Aitor Lukas Solano Asier Mingo Arruabarrena jn Amaia Miner Canflanca Aitor Huici Izagirre Urko Lazkoz Fernandez Oier Agirresarobe Lizaso Miren Kistiñe Rodriguez Polaina

<b>KONTRA</b>	<b>0</b>	
<b>ABSTENTZIOAK</b>	<b>10</b>	<p>Andoni Amonarraiz Gómez          José Antonio Cuesta Solé          Blanca Alberro Aranzasti          Miryam Vazquez Vecino          Mikel Gurutzeaga Zubillaga          Ismael Ganchegui Gonzalez          Ricardo Crespo Rubio          María Jesús Ruiz Ochoa          Jaione Aristregui Cao          Lurdes López Gorrotxategi</p>

**Beraz, onartuta gelditzen dira izendapen hauek.**

**5.1. AÑARBEKO MANKOMUNITATEA.**

- Titularra: Ainara Atorrasagasti Urizar.  
Ordezkoa: Patxi Iburguren Etxeberria.
- Titularra: Urko Lazkoz Fernandes.  
Ordezkoa: Aitor Lukas Solano.

**5.2. SAN MARKO MANKOMUNITEA.**

- Titularra: Ainara Atorrasagasti Urizar  
Ordezkoa: Patxi Iburguren Etxeberria
- Titularra: Urko Lazkoz Fernandes.  
Ordezkoa: Aitor Lukas Solano

**5.3. GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTZARITZA.**

- Titularra: Ainara Atorrasagasti Urizar.  
Ordezkoa: Urko Lazkoz Fernandes.

**5.4. UDALBILTZA.**

- Titularra: Itsaso Lekuona Legorburu  
Ordezkoa: Xabier Lertxundi Asteasuinzarra

**5.5.- EUSKAL FONDOA.**

- Titularra: Itsaso Lekuona Legorburu  
Ordezkoa: Xabier Lertxundi Asteasuinzarra

**5.6. AIAKO HARRIAK PARKE NATURALA.**

- Titularra: Ainara Atorrasagasti Urizar.  
Ordezkoa. Urko Lazkoz Fernandes.

**5.7. BEHEMENDI.**

- Titularra: Ainara Atorrasagasti Urizar.  
Ordezkoa. Urko Lazkoz Fernandes.

**5.8. BETERRI KOSTAKO INDUSTRIALDEA SA.**

- Titularra: Xabier Lertxundi Asteasuinzarra.  
Ordezkoa: Ainara Atorrasagasti Urizar.

**5.9. GARBITANIA ZERO ZABOR SM.**

- Titularra: Urko Lazkoz Fernandes.  
Ordezkoa: Ainara Atorrasagasti Urizar.

**5.10. HOBEBI ELKARTEA.**

- Titularra: Urko Lazkoz Fernandes.  
Ordezkoa: Ainara Atorrasagasti Urizar.

**5.11. BETERRI-BURUNTZA LANKIDETZA HITZARMENEN BATZORDE KUDEATZAILEAN**

- Titularra: Xabier Lertxundi Asteasuinzarra.  
Ordezkoa: Axier Mingo Arruabarrena.
- Titularra: Patxi Iburguren Etxeberria.  
Ordezkoa: Aitor Lukas Solano

**5.12. BETERRI-BURUNTZA MANKOMUNITATEKO BATZAR OROKORREKO ORDEZKARIAK**

- Titularra: Xabier Lertxundi Asteasuinzarra.



Ordezkoa: Axier Mingo Arruabarrena

2. Titularra: Patxi Iburguren Etxeberria.

Ordezkoa: Aitor Lukas Solano.

## 5.13. UEMA

1. Titularra: Xabier Lertxundi Asteasuinzarra.

Ordezkoa: Ainara Atorrasagasti Urizar

2. Titularra: Axier Mingo Arruabarrena.

Ordezkoa: Amaia Miner Canflanca.

3. Titularra: Oier Agirresarobe Lizaso.

Ordezkoa: Urko Lazkoz Fernandes.

4. Titularra: Aitor Huizi Izagirre.

Ordezkoa: Aitor Lukas Solano.

5. Titularra: Itsaso Lekuona Legorburu.

Ordezkoa: Patxi Iburguren Etxeberria.

## 5.14.- ENHERKOM ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KOMUNITATEKO ORDEZKARIA

1. Titularra: Urko Lazkoz Fernandes.

## 6.- UDALAREN OSOKO BILKUREN MAIZTASUNA.

**Alkatea.-** Honekin azken puntura pasako gara. Udalaren osoko bilkuraren maiztasuna da. Proposatzen dena da orain arte eta azken legealdi askotan egiten den bezala, hileko azken asteartean izatea. Aurreko legealdian ordua aurreratu genuen seietara eta horrela mantentzea da proposatzen duguna. Hileko azken asteartetan, seietan. Honen aldeko botoak? Aho-batez onartuta gelditzen da.

## HARTUTAKO ERABAKIA

**Alkatea.-** Hilabetean behin izatea Plenoa, hilabete bakoitzeko azken asteartean, jaieguna izango balitz, hurrengo egunean. Ordua, arratsaldeko seietan.

**Alkatea.-** Honekin, lehenengo pleno azkar honetan Udala antolatu dugu.

Premiazko osoko bilkura denez, ez dago eskaera eta galderen tarterik. Hurrengo plenoan gairik izango balitz, uztaila erdialdean egingo genuke, 25a jaieguna delako. Beraz, aurreratu egingo dugu.

Bitartean, ondo pasa Sanjoanak eta hurrengora arte.

Barkatu, ostegunean ez-ohiko pleno berezia daukagu uztailaren 23ko hauteskundeetako mahairako zozketa egiteko.

Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak onartutako Toki Erakunde Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa Ren Erregelamenduaren 203 eta 204 artikuluetan xedatutakoa betez ziurtagiri hau egiten dut dagokion akta onestearen ondoriozko terminoak, gorabehera, horrela ezartzen baitu aipatutako erregelamenduaren 206 artikulua.

Idatziz gera dadin eta ondorioak izan ditzan egin dut ziurtagiri hau, alkatearen aginduz eta bere oniritziarekin

O.E (ontzat emana)

HERNANIKO ALKATEA

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU382638a1-9a0c-45fb-9fee-b3c87857ea15**

*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:*

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>

*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>